

**ESANAK**

**XABIER LANDA**

(San Markos Mankomunitatekoa)

«Komunikazio plan bat jarri nahi du abian Diputazioak, baina alegazioak aurkezteko epea amaitu egin da»

**IÑAKI EGUSKIZAGA**

(Abokatua)

«Zabalgarbiren egitasmoak ez dauka oinarri finkorik, datu fidagarrik ez zegoelako»

**SARA DEL RIO**

(Greenpeaceko kidea)

«Gizartearen mobilizazioa eraginkorra da erraustekoak geldiarazteko»

**MIQUEL CRESPO**

(ISTASeko kidea)

«Errausketaren aurkako mugimenduak bere argudioak eta diskurtsoa berri behar ditu»

kua agindu zuen Filipinetako Gobernuak.

Miquel Crespo ISTAS Lan, Ingurumen eta Osasun Institutu Sindikaleko kideak errausketaren kontrako mugimenduz hitz egin zuen, eta «eztabaida eta gogoeta maila» jaitsi dela esan zuen. «Gure argudioak berri behar ditugu. Dioxinen eragin kaltegarrian zentratu gara, eta ahaztu dugu beste osagai kutsatzaile asko daudela». Errausketaren aurka dauden eragile guztien artean «presio talde bat» eratzea proposatu zuen, eta kanpaina zehatzak abian jartzea ere bai: «Esaterako, porlanaren etiketetan errausketatik lortutako osagaiak dauden ala ez zehatz ezaten lortu behar dugu».



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Ekologistek Guggenheim museoaren ateraino eraman zuten euren protesta.

# Elkarretaratzea egin dute Gipuzkoa eta Bizkaiko egitasmoen aurka

Eraiki nahi dituzten erraustekoaren aurrean, «hondakinak gutxitzea eta berreskuratzea» proposatzen dute talde ekologistek

Gotzon Hermsilla | BILBO

Zarama Maitaleen XVII. Topaketetan parte hartzen ari diren ekologistek elkarretaratze bat egin zuten atzo Guggenheim museoaren aurrean, Bizkaian eta Gipuzkoan eraiki nahi dituzten errausteko planten aurka protesta egiteko. Dozenaka lagunek egin zuten protestaldia, *Zaborrak gutxituz, errausketa soberan dago* zioen pankarta batekin.

Antolatzaileek prentsa ohar

batean esan zuten, «hondakinak gutxitzen ez baditugu, gero eta gehiago izango dira, maila jasanezinetara ailegatuko gara, eta konponbidea gero eta urrunago egongo da. Hondakinak sorburuan gutxitzeko neurri administratibo eta zigorzaileak ezar daitezke».

Era berean, materia organiko ere tratatzea beharrezkoa dela uste dute ekologistek: «Bestela, birziklapenak gainditu ezinezko muga bat izango du beti. Gure hondakin

%40az ari gara». Materia organiko tratatu ahal izateko, zaborrontzi bereziak jartzea eta lortutako hondakinekin konposta edo ongarriak egitea proposatzen dute.

**«Helburuak ez dira betetzen ari»**

Hiri Hondakin Plan Nazionalaren helburua zabor kopurua gutxitzea da, %6 zehatz esanda, eta 2002. urtean 1996ko mailetara itzultzea du xede. Hala ere, ekologistek

esan zuten, «helburuak handiak dira, baina ez dira betetzen ari».

Zaramaren Maitaleen Topaketetan parte hartu duten ekologistek errausketaren aurkako jarrera berretsi zuten, «garestia delako, kutsatzen duelako eta lehengaiak parastatzen dituelako», eta bereziki Bilbon eraiki nahi duten errausteko planta eta Gipuzkoan egitekoak direnak salatuz zituzten.

Halaber, Iruñeko Mankomunitateak eta, seguru aski, Gasteizko Udalak ere, hondakin organikoaren biometanizazioaren aldeko apustua egin-gotuta adierazi zuten.

**AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE LEIOA**  
ELIZATEKO UDALA

IRAGARKIA

**"LEIOA-SARRIENAN DAGOEN AREADUN FUTBOL ZELAIA BELAR ARTIFIZIALERA BIHURTZEKO" OBREN ADJUDIKAZIOA ARAUPETU DUEN BALDINTZA PLEGUA ONETSI DA**

2002.ko urriaren 30ean ondoren agertzen den iragarkia igorri da Bizkaiko Aldizkari Ofizialera argitaratua izan dadin:

"Leioa-Sarrienen dagoen areadun futbol zelaia belar artifizialera bihurtzeko" egin behar diren obrak adjudikatzeko prozedura araupetu duten baldintza plegua onetsi zuen Udal honek 2002ko urriaren 29an, 972/02 zenbakidun Alkatearen aginduren bidez. Hona hemen adjudikazioaren oinarriko ezaugarriak:

- Prozedura: Lehiaketa publikoa (irekia).
- Litzitazio oinarria: 1.164.685,87 € (B.E.Z. barne).
- Burutzeko epea: I. fasea, 3 hilabete eta II. fasea, 4 hilabete.
- Eskatutako sailkapena:
  - C Taldea, Azpitalde 2, Maila c).
  - G Taldea, Azpitalde 6, Maila d).
  - I Taldea, Azpitalde 1, Maila c).

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi duen Toki Araubideko indarreko Legezko Xedapenen Testu Bateginaren 122. artikuluan ezarritakoekin bat etoriz, baldintzen plegua jendaurrera azalduko da zortzi (8) astegunetz, iragarki hau B.A.O.ean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbaturik, nahi duenak alegazioa aurkez dezan.

Ildo berean, egutegiko hamairu (13) eguneko epearen barruan eskaintzak aurkeztu ahal izango dira, iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbaturik; alabaina, baldintzen pleguaren aurka erreklamaziorik aurkeztuz gero, proposamenen irekiera atzeratu ahal izango da.

Baldintzen plegua eta gainerako agiriak Udalaren Bulego Teknikoan (udaletxe 3. solairua) eta Cianoplan enpresaren lokalean (Getxo, Plentziako hiria, 6, beheko solairua) daude ikusgai eta nahi duenak bulego-orduetan aztertu ahal izango ditu.

Leioan, 2002ko urriaren 29an. ALKATEA, Sin.: Karmelo Sáinz de la Maza Arrola

**LANGILEENTZAKO FORMAKUNTZA**  
Doako ikastaroak

Informazio gehiago  
943 51 60 99

**Zizamalbide**  
institutua

IKASTAROA	ORDUAK	DATA
Informatika Orokorra W-98	20	2002-XII-9
Internet	30	2003-I-13
Word	30	2003-II-3
Excell	30	2003-II-24
Acces	30	2003-III-24
Kontabilitatea	40	2003-I-7
Kontabilitate Mekanizatua	20	2003-II-3
Nominak eta Kontratuak	40	2003-I-7
Automata C200H Omron	40	2002-XI-25
Mikroautomata ZELIO-LOGIC	40	2003-III-17

FONDO SOCIAL EUROPEO

MOBETUZ

**INTERPRETAZIO IKASTAROA**  
**KAMERA AURREAN**

Goenkale telesailaren jarraitpena dela eta, ikutu berria eman asmoz, Pausoka S.A. ren eskutik

**Adin mugarik gabe!**

2002ko Azaroaren Betik  
Abenduaren 20ra

Mundaiz Pasaletua 4, Donostia  
943 297 111 (Isabel)

www.pausoka-eskola.com